

Aparra,  
gora  
eta gora

Bost Garagardo  
Azoka izan dira ▶ 2-3



## Eguraldi kaskarrak zaildu egin du aurten Berazubiko mendi bizikleta trabesia

**86 LAGUN** ▶ Mendikuteko kideen esanetan, 86 parte-hartzailek irten zuten atzo goizean Berazubitik

**LEHENA** ▶ Aitor Olano altzotarra izan zen azkarren, ordubeteko denboran, Berazubiko helmugan ▶ 5



Parte-hartzaileak, atzo. HITZA




### Tolosako Herri Krosean aurreko urteetan baino lehiakide gutxiago izan da

**TOLOSA** ▶ 300 bat parte-hartzaile lehiatu ziren atzo San Esteban auzoan hasi eta bukatu zen XVII. Tolosako Herri Krosean; iazko edizioetan baino gutxiago. Jose Javier Cuadrado eta Amaia Insausti izan ziren probako irabazle. JAIGONE ASTIBIA ▶ 7

**TOLOSA** ▶

### Taldea egonkortu nahi du Hegoalde

Maidar Lopez jokalaria tolosarra Hegoaldera itzuli da Murtziako UCAM taldetik ▶ 6-7



Hegoaldekoak, Berazubin. HITZA

**IBARRA** ▶

### Fernandez 2004ko regatista onenaren sarirako izendatu dute

Nazioarteko Bela Federazioak esana ▶ 5

GARAGARDO AZOKAK ▶

# Aparra, goraka

Bost garagardo azoka egiten dira eskualdean —aurten bi berri antolatu dituzte—; arrakasta lortzen ari dira: jende ugari bildu eta giro berezia sortzen dute herrian



Villabona. Eskualdean beteroenak dira Irrintzi elkarteak garagardo azokak antolatzen eta Gipuzkoan bigarrenak. GARAZI AZKUE

## JOXEMI SAIZAR

Villabona izan zen Garagardo Azoka antolatu zuen eskualdeko lehen herria eta atzetik beste lau —oraingoz— etorri dira: Tolosa, Ibarra, Alegia eta Irura. Beste herri batzuetan ere antolatzen dituzte, baina billabonatarrek Gipuzkoako beteroenak dira Intxaurrendoko azokaren ondoren, 8. edizioa bete baitute uda honetan. Tolosakoak seigarren edizioa bete du aurten. Berrienak Irurakoa —aurten bigarrena— eta 2004an sortu diren Alegiakoa eta Ibarrakoa dira.

Jendetza handiak biltzen dituen fenomenotzat har daiteke garagardo festena. Alemaniatik hartutako ideia gure eskualdean —eta Euskal Herriko toki askotan— ondo errotu dela esan daiteke. Garagardo da festaren aitzakia eta prota-

gonista, baina edari hori hartzen ez duen jendea ere biltzen da horrelakoetan, beste edari batzuen eskaintza ere izaten delako.

## Giro aparta

Herriko jaiak krisian sartu direla dirudien garai honetan, garagardo azokak goraka dituzte. Tabernetan ere ondotoxo dakite hori. Villabonan, adibidez, Santio jaien aurreko asteburuan izaten da beti, eta jaietan adina jende —edo gehiago— biltzen da Txermin auzoan Garagardo Azokarekin.

Tolosan izan da eskualdeko azken garagardo festa eta antolatzaileek egin berri duten balorazioan horixe azpimarratu dute: «Inauteriak kenduz gero, herrian eta tabernetan giroa sortzen duen festa garagardoarena da».

Ibarraren eta Tolosaren kasuan, helburuen artean sartu zuten antolatzaileek «herri giroa bultzatzea» eta lortu zutela azaldu zuten ondorengo balorazioan.

Adinaren aldetik biltzen den jende mota ere deigarria da: adin guztietakoa. Hori lortzen duen ekitaldi bakarrenetakoa izango da, eskualde honetan behintzat. Normalean asteburu batean izaten dira azokak. Larunbatetan eta igandetan familia giroa izaten da eta ostegunetan eta ostiralean, gazte giroa. Kontsumoan ere nabarmentzen da publiko mota: «Gazteek gehiago edaten dute eta gurasoak haurrekin joaten direnean janari gehiago zerbitzatzen da», zioten irurarrak.

Kokaleku aldetik, kasu guztietan espazio handia eta estalia aukeratzeko antolatzaileek. Eguraldiak eragin handia

du noski azoken emaitzetan, eta aterpea ziurtatzea ezinbestekoa izaten da. Villabonan Txermin auzoan, Ikastolaren azpialdean, egiten dute; Tolosan Zerkausian, Solana kalean eta Plaza Zaharrean —karpak jarrita—; Alegian, frontoian; eta Ibarra, plazan jarritako karpetan. Iruran bigarren edizioa izan dute aurten eta, gainera, frontoi berria izan dute kokaleku gisa, plaza baino bilduagoa eta egokiagoa.

## Elkarlanaren garrantzia

«Mundiala izan da, jende asko ibili da. Gainera, herri osoa inplikatu da lanean: gazteak, gurasoak, irakasleak, ikasleak, elkarrekin...», azaldu zuten Irurako antolatzaileek. Eskualdeko beste herri batzuen laguntza ere eskertu zuten irurarrak, Amezketan eta Ibarroko labeak

eta plantxak utzi zizkietelako azokarako.

Elkarlana izaten da festa hauen ezaugarri nagusienetakoa —eta ezinbestekoa, bestalde— . Irurako kasua aipatu dugu. Bolumen eta tradizio aldetik, Villabonakoa izango da garrantzitsua. Irrintzi elkarrekin da antolatzailea, baina zortzi urte hauetan 150 laguntzailearen sare zabala lortu du, azokaren egunetan sukaldetan, kaintan edo mahaietan presatzen, zerbitzatzen eta jasotzen aritzeko. Hori egun berean. Aurretik, bi hilabete luzeko lana dago azoka honen atzean. Ibarra 200 lagunetik gora izan dira lanean eta Tolosan ere ez dira gutxiago izan.

Tolosaren kasuan herriko kirol elkarteak izan dira antolatzaileak, Udalaren laguntzarekin. Ibarra bederatzik elkarrekin bildu dira lehen edizio honetarako, baina herri osoaren laguntza dute. Elkarlanak sortu duen giro onaren adierazgarria da, joan zen asteburuan Lasturren egindako egunpasa. Alegiaren kasuan, Intxurre futbol taldea da antolatzailea, baina laguntzaile ugariarekin.

## Helburu ekonomikoa

Garagardo azoka hauen helburu nagusia —lehen aipatutakoa az aparte— ekonomikoa izaten da. Normalean talde antolatzaileek urtean zehar bere aktibitatean sortutako gastuei aurre egiteko erabiltzen da irabazitako dirua. Kasu berezia da Irurakoa. Bi urtetan helburu ekonomikoa izan dute, baina destinatzaile desberdina. Iaz, *Egunkaria* itxi ondoren sortutako *Berriaren* alde antolatu zuten. Aurten berriz, Ikastolako gela berriak zabaltzeko erabiliko dute lortutako irabazia.

Azokan antolaketan urte batzuk daramatzatenak eta hasiberriak direnak ados daude: «Aurtengo emaitzen ondoren, hurrengo urterako ere animatuta gaude».

## hilberriak ▶

eskalak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 530 258 ▶ tolosa@tolosaldeko-hitza.info



### Miguel Arakama Sarasola

JAUNA

Atzo hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

#### — Goian bego —

Anai-arrebak: Pedro eta Juana Karrera; ilobak: Arantxa eta Jesus M. Aranburu, Kontxi, Karmen eta Jesus M. Ormazabal, Jose M. eta Garbiñe Biurrun, Jose Ignacio eta Pilar Gutierrez; Miren, Arantza, Juanxo, Martin eta Mikkel; lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ San Juan kalea, 46 3-esk  
oharra ▶ gorputz bella Tolosako Funeraria  
Vascongada Tanatorioan dago 16:40 arte.

ALEGIA, 2004ko urriaren 13a

## hilberriak ▶

eskalak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 530 258 ▶ tolosa@tolosaldeko-hitza.info



### Antonio Zubiaurre Otegi jauna

(ALKIZAKO ALKATEA)

— Gotan bego —

Agur eta ohore  
alkate jaunari  
Antonio Zubiaurre  
gure lagunari

Nahiz uda beroetan  
nahiz negu hotzetan  
beti egongo zera  
gure bihotzetan



ALKIZAKO UDALA

oharra ▶ gorputz udalbelean egingo da 17:00etatik 18:00etara.

ALKIZA, 2004ko urriaren 13a



**Ibarra.** Herriko bederatzik elkarrekin bildu dira aurten lehen aldiz garagardo festa antolatzeko, Hauspoa, Udala, tabernari eta dendariaren laguntzarekin; aurreko asteburuan Lasturren egunpasa egin zuten bertan lanean aritu zirenek. HITZA



**Alegia.** Jende ugari bildu zen apirillean Elorri pilotalekuan Intxurre elkarteak antolatu zuen I. Zerbeza Festan; 4.000 euroko irabazia izan zen futbol taldearentzat. HITZA



**Irura.** Aurten frontoi berrian egin ahal izan dute Ikastolaren aldeko garagardo azoka; herri osoaren laguntza eta partaidetza eskertu dute antolatzaileek. GARAZI AZKUE



**Tolosa.** Zerkausia txiki gelditu zen lehen urtean eta azken urteotan Solana kalera eta Plaza Zaharrera zabaldu behar dute garagardo azokaren antolaketan ari diren kirol elkarteek; lortutako emaitza ekonomikoekin eta giroarekin pozik agertu dira. AMAIA BELAUNZARAN

**GARAGARDO AZOKAK ▶ XEHETASUNAK**

**ALEGIA**

**Izena.** I. Zerbeza Festa.  
**Data.** Apirilak 16-18.  
**Lekua.** Elordik frontoia. 230 lagunentzako lekua.  
**Kopuruak.** 10 garagardo mota, 3.000 litro eskatu zituzten.  
**Antolatzailea.** Intxurre futbol taldea.  
**Helburua.** Intxurre futbol taldea laguntzea. 4.000 euroko irabazia izan zen.  
**Bestelakoak.** Herri bazkaria egin zuten azken egunean.

**IBARRA**

**Izena.** I. Garagardo Festa.  
**Data.** Maiatzak 13-16.  
**Lekua.** Bi karpa san Bartolome plazan.  
**Kopuruak.** 6.000 litro

garagardo, 4.000 pitxar, 2.500 saltxitxa, 1.000 ukondo, Ibarra piperrak, txorizoa, euskal saltxitxak, gazta, irasagarra, euskal pastela; 200 lagunetik gora lanean.  
**Antolatzaileak.** Herriko bederatzik elkarrekin bildu dira —Haizetanraju mendik taldea, Denak areto futbol taldea, Gazte Asanblada, Zikloturista Taldea, Alurr dantza taldea, Gaztetxeko Futbol 7 taldea, *Eneko Aritzaren* lagunak, Subegi elkarte eta butozaleak—, Hauspoa, Udala, dendari eta tabernariaren laguntzarekin.  
**Helburua.** Taldeentzako diru laguntza lortu eta herri giroa bultzatu.  
**Bestelakoak.** Iraola-Pagadiren ikuskizuna, txalaparta, haur jolasak, DJ-ak...

**IRURA**

**Izena.** II. Garagardo Azoka.  
**Data.** Uztailak 2-4.  
**Lekua.** Frontoi berria. 500 lagunentzako tokiak.  
**Kopuruak.** 16 garagardo mota (arruntak 2,5 eurotan eta bereziak 3 eurotan), ukondoa, saltxitxa, gulak.  
**Antolatzaileak.** Gazteak, Ikastolako gurasoak eta herritarrek.  
**Helburua.** Ikastolan egoitza berria egiteko laguntzea.

**TOLOSA**

**Izena.** VI. Garagardo Festa.  
**Data.** Irailak 16-19.  
**Lekua.** Zerkausia, Solana kalea eta Plaza Zaharra. 1.000 lagunentzako tokiak.

**Kopuruak.** 27 garagardo mota, 7.000 litro, 600 botila ur, 1.800 ukondo, 4.000 saltxitxa (zuria, gorria eta hanburgesa alemaniarra), Ibarra piperrak 1.500 razio, 1.300 postre (gazta, irasagarra eta euskal pastela).  
**Antolatzaileak.** Tolosaldea Igeri Kirol Taldea —Igarondo, Tolosa CF eta Urpekoak—, Judo Taldea eta Hegoalde areto futbol taldea.  
**Helburua.** Taldeentzako diru laguntza lortzea, jendea erakartzea eta herri giroa sortzea.  
**Bestelakoak.** Musika Bandaren kalejira, txalaparta, txirindulari probak, Gerigay pailazo taldea, Vista Alegre txaranga, haur jolasak, xake erakusketa...

**VILLABONA**

**Izena.** 8. Garagardo Azoka.  
**Data.** Uztailak 15-18.  
**Lekua.** Txermin auzoa, Ikastolaren azpialdea.  
**Kopuruak.** 18 garagardo mota (10 arrunt 2,5 eurotan eta 8 berezi 3 eurotan), 3.000 ukondo, 1.000 kilo saltxitxa, gazta, bakailoa, lasagna, gulak, entsalada normala eta alemaniarra, 150 pertsona lanean, lau nabe industrial, 8 sukalde, 13 mikrouhin eta plantxa handi bat.  
**Antolatzailea.** Irrintzi elkarte.  
**Bestelakoak.** Elkartearentzat diru laguntza lortzea.  
**Bestelakoak.** Bi lagunentzako Tenerifera bidaiak antolatu dute, astebetetzeko pensio erdian eta Pariak bai musika taldea.

ESTETIKA ▶

# Orrazien paradisu berria

Irailaren 27tik Naikari ileapaindegia San Frantzisko ibiltokian aurkitzen den lokal berrian da



Naikari ileapaindegiko langileak pozik agertzen dira San Frantziskoko lokal berriarekin. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

**E**rremontariaren etxean zotzak burduntzi direla esan ohi da sarri; Naikari ileapaindegiko langileek, ordea, atsoitz honen teoria apur-tu egiten dute erabat, ezin baitaiteke esan lan-taldean osatzen duten zazpi nesken itxura zaindua ez dagoenik. Denak pozik eta ilusioz beterik azaltzen dira beraien lantoki berriarekin.

Olarra ahizpek proiektu berri honi ekin diote hamar urtez negozioia Solana kalean izan ondoren, eta badirudi derrigorrezko San Pankrazioa bere emaitzak ematen ari dela, izan ere, pozik azaltzen dira emaitzarekin. Garbiñe eta Kontxi Olarra ahizpek azaldu dutenez, «bezeroak oso ondo erantzuten ari dira, haiei ere ilusioa egiten baitie lokal berria eza-gutzeak». Berrikuntzak eta al-daketak emaitza positiboak ekarri dizkie olarratarrei eta jende gehiago hurbildu da ileapaindegi berriraino.

## Zazpiko lan-taldea

Lehen aldiz ileapaindegia ireki zutenean neska bakarra zebilen lanean beraiekin batera. Baina negozioa hedatzen zihon heinean, langile kopurua ere handitzen joan zen eta horrela gaur egungo lan-taldea

## Ibilbide profesional zabala

Garbiñe eta Kontxi Olarrak duela hamar urte, langile bakar batekin eta ilusioz beteriko zakua bizkar gainean zutela, Naikari ileapaindegia irekitzeko erabakia hartu zuten. Hamarkada pasa den honetan beraien negozioa finkatu dute eta etorkizunari gaur egun gozaten duten egoera mantentzea eskatzen diote.

Ez da, dena den, hau beraien lehendabiziko lana izan, jorratutako esperientzia baitute biek ere. Garbiñek, duela hogeitalau urte eman zituen bere lehen urratsak ileapaindegien munduan, eta bere ikasketak burutu ostean, Paganolan hasi zen lanean asteburuetan. Hemen urtebete eman ondoren Kontxi ileapaindegi-  
ra pasatu zen lanera eta hemen hamairu urtez egon zen.

Kontxik, bestalde, duela hogeitabi urte eman zion hasiera bere ibilbideari, eta ileapaintzaile eta makillaje ikasketak burutu ostean, Dorin egon zen zortzi urtez bere estetikako ikasketak praktikan jartzen. Ondoren, beste lau urtez joan zen Kontxi ileapaindegi-  
ra eta hemendik irten ziren biak be-



Olarra ahizpak. N. LATABURU

raien bakarkako abenturari hasiera emateko. «Gustukoago dut ileapaintzaile lana makillatzailearena baino», aitortu du Kontxi Olarrak. Euren lanbidearen okerrera ordutegia dela dioten arren lana gustura egiten denean nekatzen ez direla aitortzen dute. ◀

osatu zuten. Zazpi neskak dhardute lanean Naikarin: Saioa Gil da Garbiñe eta Kontxi Olarrarekin urte gehien egin dituen langilea. Bederatzi urte damatza Gilek Naikarin, eta ilea apaintzeaz gain, berak egiten ditu makillaje lanak ere. Bigarrena Alaitz Martinez izan zen duela sei urte. Hirugarrena, berriz, Eguzki Arana izan zen eta jada hiru urte daramatza lan-taldean. Asteburuetan ere urtebetetik hona Olatz Lazkanoren laguntza jasotzen dute eta ileapaindegira batu den azkena Eli Artola da, duela sei hilabete.

## Dana bezeroaren zerbitzura

Nagusiki, Solana kalean espazio falta zegoelako egin dute negozioaren leku aldatzea, «aurreko lokala txiki-gia geratu zitzagun, bai bezeroentzat eta baita guretzat ere», adierazi dute bi ileapaintzaileek. Ifñaki Goikoetxeak diseinatu duen ileapaindegiaren berrikuntza gehienak bezeroaren mesederako pentsatuak izan dira, eta bezeroa erosoago sentitzea dute helburu. Apain-mahai gehiago jarri dituzte —lehen sei ziren eta orain hamaika jarri dituzte—, eta burua garbitzerakoan erabiltzen diren aulki-ek masajeak ematen dituzte, bezeroa erlaxatu ahal izateko. Ileapainketa zerbitzuarekin batera, manikura, pedikura eta makillajea eskaintzen dira eta Saioa Gilek du hiru zerbitzu horien ardura.

Baina berrikuntza guztien gainetik bezeroarekin tratu ona izatea zaintzen dute Naikarrikoek. Jakina da Tolosan hamaika ileapaindegi dagoela eta ezaugarri bereizgarria bezeroarekiko harrera dela azpimarratu dute ileapaindegiko bi jabeek. «Gure lana ondo egitea eta norberaren pertsonalitatea eta nahiak errespetatzea da gakoa, bezeroari konfiantza emanez», esan dute Kontxi eta Garbiñe Olarrak.

Honekin batera beti modari estuki lotuta daude eta horretarako nazioarteko mailan garrantzia duten desfiteetara joaten dira. «Urtean bitan Londresen izaten gara zazpiak eta Madrilerara ere joaten gara beste bitan, tendentzia berriak ezagutzeko eta gure bezeroei hoberena eskaini ahal izateko», azaldu dute Olarra ahizpek.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 6532112  
**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aitzondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrerik aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttpa adl.: 948 631888

### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

### GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Azpiroz, M.L. Amaro azuoa, 9 (Tolosa). 943 67 51 18. Gimeno, A. Elbarren, 52 (Leitza). 112.

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitate.** 661 67 88 18.

tolosaldeko\_publi@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona\_aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoeta-Ida.** 687 41 00 22

anoetaida@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitza-Ida.** 687 41 01 18.

leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

### GALDUTAKOAK

**Txakurra.** Txakur bat (Lagun) galdu da Alizo inguruan. Inork ikusi badu, deitu: 658 706 781 / 679 251 698.

### SALTZEKO

**Mendiko botak.** Sportiva 212, Glaciar mendiko botak salgai. Taila: 39 t'rdi. 652 72 64 90.

TOLOSA ▶ MENDI BIZIKLETA

IÑIGO TERRADILLOS

Berazubiko jaien egitarauaren barnean eta Mendikute Elkar-teak antolatuta, mendiko bizikleta trabesia egin zuten atzo goizean. Eguraldia txirrindu gainean ibiltzeko oso aproposa izan ez bazen ere, Mendikute elkartekoei adierazi zuten 86 lagun izan ziren trabesia egitera animatu zirenak.

Berazubitik atera ziren mendiko bizikleta gainean berriro ere bueltan etortzeko 22 kilometroko bidea bete ondoren. San Blaserako norabidean abiatu ziren txirrinulariak eta Zazpibidetik, Leaburutik, Belauntzatik, Arrospeitik eta Gaztelutik pasatu ziren eta Tolosara iritsi ziren berriro Leaburu eta Zazpibide gurutzatuz. Izas-kun auzotik Berazubira heltzean amaitzen zen trabesia.

Behin beraien lana amaiturik zutela opariak zituzten zain izena eman zuten guztiek. Zozketa bidez saria egokitzen zitzaion parte-hartzaile bakoitzari, eta bizikletarako osagarriekin edo jantziekin, betaurrerekoekin edo ardo eta xanpain botilekin joan ziren etxera guztiak.

Ariketa fisiko handi a egin eta gero kirolariek asko eskertu zuten prestatu zitzaizen txorizo egosia, pastak eta edatekoa.

Trabesia lehen a amaitzen Oriako Txirrinulari Eskolako Aitor Olano izan zen. 18 urteko altzotarrak ordubetean burutu zuten egin beharreko bidea. Minutu batzuk beranduago iritsi ziren ondorengoak eta gainerakoak iristen joan ziren goiza aurrera zihono heinean.

Adin guztietako jendeak hartu zuten parte. Gaztetxoak edo helduagoak, denek izan zuten lekua, eta askorentzat urteroko ohiko hitzordua bihurtu da Mendikutek antolatzen duen mendiko bizikleta trabesia.

Giroa ere apartekoa izan zen Tolosako auzoan; kirola eta jaia uztartu ziren eta asko izan ziren txirrinulariak ikustera gerturatu zirenak.

# Eguraldiak zaildu egin du bizikleta trabesia

Oriako Txirrinulari Eskolako Aitor Olano altzotarra izan zen lehena, ordubeteko denboran, mendiko itzulia egin eta gero



86 lagunek eman zuten izena Mendikute Elkar-teak antolatutako mendiko bizikleta trabesian. IÑIGO TERRADILLOS

AITOR OLANO ▶ TXIRRINDULARIA

## «Datorren urtean, afizionatuetako mailara azkar ohitzea da helburua»

Aitor Olano 18 urteko altzotarra Oriako Txirrinulari Eskolan aritzen da jubenil mailan. Hainbat garaipen lortu ditu aurten, azkena, atzo Tolosan, Mendikute Elkar-teak antolaturiko mendiko bizikleta trabesia.

**Nola ikusi duzu zure burua mendiko trabesia honetan?**

Lasai atera gara. Hiruko taldea osatu eta aurreratutako gara. Geroago aurrea hartu eta atzean utzi ditut beste biak eta trabesia erdia baino gehiago bakarrik egin dut azkenean Tolosara iritsi arte. Bestalde, egu-



IÑIGO ASENSO

raldi txarrak bidea zaildu duela ere aipatu behar da.

**Aurrera begira, zein dira zure asmoak?**

Datorren urtean afizionatuetan aritzea izango da hurrengo pausua niretzat. Salto handia dagoela diote eta ahal den azkarren ohitzea gustatuko litzaideke.

**Etorkizuna, berriz, txirrindu gainean ikusten al duzu?**

Orain ikasten ari naiz, baina txirrinularitzarekin jarraitzea da nire helburua. Honetaz bizitzea oso zaila da eta lan handia egin beharra dago.

IBARRA ▶

## 2004 urteko regatista onenerako izendatuak

Xabi Fernandez eta Iker Martinez izendatu ditu Nazioarteko Bela Federazioak

I.TERRADILLOS

Urte honetako abuztuan Atenasen jokatu ziren Olinpiar Jokoetan heldu zen Xabi Fernandez ibartarrarentzat eta Iker Martinez de Lizardui hondarribiarrarentzat azken saria, bertan urrezko domina irabazi baitzuten belan 49er modalitatean.

Orain beste sari bat irabaztear egon daitezke kirolari gipuzkoarrak. Nazioarteko Bela Federazioak Espainiako estatuko ordezkari bezala izendatu dituen bikote bakarra izan da ISAF Rolex World Sailor of the Year 2004 saria emateko. Munduko regatista onenaren sari bezala ezagutzen da hau eta urteko kirolari hoberenari ematen zaio urtero.

Kasu honetan, Xabi Fernandezek eta Iker Martinezek urte honetan lortu dituzten garaipenen arabera eta beste izendatuekin konparatuta emaitza hobek badituzte eskuratu ahal izango dute urteko regatista onenaren saria. Atenas 2004ko urrezko domina eta munduko txapel-dun titulua eskuratu dituzte aurten.

2002an ere sari honetarako izendatuak izan ziren Europako eta munduko txapel-dunak izan eta gero, baina Ben Ainslie britaniarrari egokitu zitzaion. Urte honetan ere izandautua dago Ainslie, Atenasen Finn modalitatean lortutako urrezko dominarengatik.

iragarki laburrak ▶

**BASABI Inmobiliaria**  
Pablo Gonzalez, 40  
1. planta - 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Telf. eta Faxa: 943 65 55 87  
mag.: 669 368 994

**Aizarnazabal.** Txakoli saila duen 50.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai.

Nekazal ustiapenaren bitartez bi familientzako etxebizitza egiteko aukera.

**Albiztur.** Etxe rustikoa salgai; hiru solairukoa. Solairu bakoitzak 120 m<sup>2</sup> ditu, eta 200 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**Bizitzera sartzeko prest.**

**Andoain.** Bi gelako etxebizitza salgai; egongela, sukaldea eta bainugelarekin. Oso eguzkitsua.

**Anoeta.** Etxe atxikia salgai; garajea aukeran.

**Belauntza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabilioia salgai; erabat garbia, argitsua eta garbiarekin.

**Donostia.** Hotel Costa Vasca inguruan, 94 m<sup>2</sup>-ko bulegoa salgai; banatzeko aukera.

**Donostia.** 104 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarri ditu eta erabat berritua dago.

**Gaintza (Nafarroa).** 3 solairuko baserria salgai; berrikuntza behar du.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.

**Ibarra.** Guridi maisua kalean 85 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, eguzkitsua, kanpoaldera begira eta hornitua.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Berritzeko. Lehenengo pisua; kanpoaldera.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabilioia eta nekazaritzarako egokia den 2.500 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai.

**Lasarte.** Egoera bikainean dagoen 62 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.

**Legorreta.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioia salgai, 5.000 m<sup>2</sup> dituen lursailaz

hornitua, erosteko edo alokatzeko aukera.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioia, eraikuntza berrikoa.

**Segura.** Erabat berrituak dauden 60 m<sup>2</sup>-ko eta 90 m<sup>2</sup>-ko bi etxebizitza salgai.

**Tolosa.** San Esteban auzoan, 76 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza dago salgai; hiru fatxada ditu, eta oso eguzkitsua da.

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 140 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza dago salgai, garajea erosteko aukerarekin.

ARETO FUTBOLA ▶

# Hegoalde, egonkortasun bila

Areto futbol taldeak helburu jakinak ditu denboraldi honetarako: egonkortasuna lortzea, aurrerago jokatzeko eta «beste taldeekin harreman naturalak izatea»



Hegoalde areto futbol taldea, denboraldiko lehen partida hasi aurretik. IMANOL GARCIA

MADDI SOROA

Hegoalde areto futbol taldeak duela hiru aste ekin zion denboraldi berriari, eta aurtengoa seigarrena izango du Ohorezko Mailan. Iazko denboraldiari dagokionez, 14 taldetatik seigarren postuan geratu ziren, zazpigarren taldearekin parekatu. Maite Argote, taldeko bigarren entrenatzaile eta ordezkariaren hitzetan, «nahiko denboraldi ona egin genuen, izan ere, bi kirolari garrantzitsuk taldea utzi zuten, eta egoerari aurre egin behar izan genion; taldea berritu beharra izan genuen. Beraz, horiek guztiak kontuan hartuz, balorazio ona egiten dut». Argotek adierazi duenaren arabera, «egokitzapen fase batean sartu zen taldea», izan ere, Sonia Tomek —atezaina— eta Maider Lopezek —pibota eta hegalean— taldea utzi zuten.

Denboraldi berriari dagokionez, zenbait aldatuta jasan ditu taldeak. Batetik, Itsaso Martinez eta Isa Blanco jokalariek taldea utzi dute. Bestetik, berriz, iaz taldea utzi zuten Sonia Tome eta Maider Lopez taldera bueltatu dira, eta Edurne Agirretxe eta Amaia Azpilikueta beheko taldetik talde nagusira igo dira.

Denboraldi berrirako dituzten asmoen artean, «taldean egonkortasuna lortzea da gure helbururik nagusienetakoa», adierazi du Maite Argotek. Jokari dagokionez ere mintzatu da: «Oso ongi jokatzen dugu gure kantuan, eta joko hori eraman nahiko genuke kanta guztietara. Horretarako, presio gehiago egin beharko dugu, defentsa aurreratuz eta aurrerago jokatuz». Taktikari errepertatu gero, berriz, gehiago landu beharrekoa dela uste du Argotek.

## Haize berriak taldearentzat

Taldearen etorkizunaren harira, «harreman naturalak izan nahi ditugu beste areto futbol leko nesken taldeekin. Harreman erraza eta arina lortu nahi dugu, ez inposaturikoa», dio Hegoaldeko bigarren entrenatzaileak. Argotek uste du Hegoaldetik at futbolean dabilzan jokalariek «dakaratu» egiten direla, talde indartsua delako. Horregatik, asmo nagusia hesi hori puskatu eta jendea animatzea da, apurka-apurka —astean behin elkarrekin entrenatuz, esaterako—, taldean sartuz joateko. Modu horretan, etorkizunari begira Hegoalde areto futbol taldeak aurrera egin ahal izango luke. Izan ere, Argotek hitzetan, «instalazio berriak ditugu, kategoriala ona lortu dugu, oso jokari onak

## Garaipenaren bidean galduta

Hirugarren jardunaldiko partidua 7-3 galdu du Zaragozan (Espainia) Hegoalde

### IRATXE ETXEBESTE

Lehen hirugarren partida jokatu zuen larunbatean Hegoaldeko Zaragozan (Espainia). Hasieran, istripuz hil ziren Aragoiko areto futbol talde bateko lau jokalariei omen egin zieten espainiarrek eta euskaldunek. Harrezkero ez ziren oso ondo aritu Tolosa-koak. Jokoa ezin sarturik hasi, eta zaragozarrei jokatzeko leku gehiegi utzi. Hala, eta defentsan izandako hutsen ondorioz bi gol atzetik jarri ziren tolosarrak zortzigarren minuturako.

Hala ere, ez zuten etsi tolosarrak eta saiatu ziren aurrera egiten, baina aurkariaren atezainak batzutan, eta zorte ezak besteetan, Hegoaldekoak markagailuan hurbiltzea ekidin zuten. Aukera apartak izan zituzten Nereak, Maiderrek eta Miriam Pradosek, baina ezin sarea zultatu.

Lehen zatia amaitzerako beste gol bat egin zuten zaragozarrek eta 3-0ekoarekin joan ziren aldageletara. Bigarren zatian partidari buelta emateko grinakin eta konfiantzarekin irten ziren tolosarrak

kantxara, defentsa gogorra goa eginez eta kantxa guztian presionatuz, eta laster eman zituen fruituak Hegoaldekoen lanak. Laugarren minutuan Maiderri egindako penaltia ederki sartu zuen Alde kapitainak, eta bi minutu beranduago Isak egin zuen tolosarren bigarrena. Partiduan zeuden berriro tolosarrak, baina ez zuten asko iraun pozak, handik gutxira kornen baten ondorioz 4-2koa sartu baitzuten bertakoek. Hori gutxi bazen, seigarren minuturako bosgarren falta adierazia zuten arbitroek, eta 10

metroko jaurtiketen bidez sartutako beste bi goleak ia erabakita zuten partidua.

Amaiera aurretik beste bi gol gehiago izan ziren, baina talde bakoitzaren aldetik. Nereak egin zuen tolosarren hirugarrena area kanpotik egindako jaurtiketa baten bitartez. Hala, 7-3koarekin amaitu zen neurketa, «nahiz eta emaitza markagailuak islatzen duena baina borrokatuagoa izan».

Hegoalderen aldetik Xoni, Nerea, Gema, Amaia, Edurne, Maider, Alde, Isa, Miriam Arana, Prados eta Esther aritu ziren larunbatean, eta gol bana egin zuten Nereak, Aldek eta Isak. Jasotako porrotaren ondorioz azken postuetan murgilduta dago taldea, puntu bat bera ere lortu gabe. Hala eta guztiz ere, «lasaitasun pixka bat» emango dien garaipenaren bila aterako direla diote Hegoaldeko jokalariek datoren asteen Berazubini jokatu den partidura. Mostoles talde indartsua izango dute tolosarrak aurrean arratsaldeko zapietatik aurrera. Aukera polita lehen hiru puntuak eskuratzeko. «Ea hala izaten den!». ◀

Informazioa eta komunikazioa **mirifogak**

**Nola egin online administrazio publikoekiko izapideak.**

Internet eta Teknologia Berriak eskuratu, denbora gutxira nola salbustu dezakazu azalduko ditugu. Orain zure etara, bulego edo negoziotik egin dituzkezu administrazio publikoekiko izapideak, erosotasunez.

Tolosaldea  
urriak 14  
**TOLOSA**  
Tolosaldea Larbide Herriko Institutua

Ondango: 18:00-20:00

Informazioa eta beste zerbitzuak  
**902 252 595**  
www.mirifogak.com  
orain@mirifogak.com

Partidulariak  
Internet  
Mirifogak

Eusko Jaurlaritzaren  
Eusko Foruaren  
Eusko Legebiltzararen  
Eusko Kontseiluaren  
Eusko Espazioaren  
Eusko Erakundearen  
Eusko Espazioaren  
Eusko Erakundearen  
Eusko Espazioaren

Eusko Jaurlaritzaren  
Eusko Foruaren  
Eusko Legebiltzararen  
Eusko Kontseiluaren  
Eusko Espazioaren  
Eusko Erakundearen  
Eusko Espazioaren  
Eusko Erakundearen  
Eusko Espazioaren

Eusko Jaurlaritzaren  
Eusko Foruaren  
Eusko Legebiltzararen  
Eusko Kontseiluaren  
Eusko Espazioaren  
Eusko Erakundearen  
Eusko Espazioaren  
Eusko Erakundearen  
Eusko Espazioaren

TOLOSAKO XVII. HERRI KROSA ▶

GERTUTIK ▶ MAIDER LOPEZ (HEGOALDEKO JOKALARIA)

## «Ez dut berdin sentitu Mutziako kamiseta»

**M**aider Lopezek 26 urte ditu, abokatua da eta Tolosan bizi da. 8 urterekin hasi zen futboleko Laskorain ikastolako taldean. 17 urterekin Bentalden jokatu zuen bi urtez, eta 19rekin, Hegoalde taldea sortzearekin batera, bertan jokatzeko hasi zen. Lehenengo urtean Ohorezko Mailara igo zen bere taldea, eta ordutik urtero izan da Hegoaldeko jokalaria Ohorezko Mailan. Horrez gain, Euskadiko Selekzioarekin eta EHU-rekin makina bat partida jokatu ditu, eta sari mordoak lortu ditu ibilbide luzean zehar.

Iazko denboraldian Murtziara (Espainia) egin zuen txangoa. Bertan, UCAM taldearekin jokatzeko gain, jardute juridikoko masterra egiten aritu da. Denetik izan du Maider Lopezek Murtzian: hiru hilabeteko lesioa belaeanean, entrenatzaile aldatuta... baina orokorrean («oso esperientzia ona» izan da Lopezen iritziz).

UCAM-en, Hegoalderen aldean, ezberdintasun ugari aurkitu zituen Maider Lopezek. Entrenamenduak «taktikoagoak» ziren Murtziako taldean: «Hasieratik lantzen zuten baloia, entrenatzailearen joko taktikak ere asko lantzen ziren». Taldeko giroan ere

bada alderik tolosarraren ustetan. Hango taldean giroa «ona» izan zen arren, ez baitzen hain gertukoa izan: «Hegoalden ni neu naiz, gehiago inplikatzeko naiz; Murtzian, ordea, taldearen pisua beste jokariengan zegoen». Horrez gain, «ez dut berdin sentitu Murtziako kamiseta Hegoalden bezala», adierazi du Lopezek. «Konpromiso nagusia nire lana ongi egitea zen, egin beharrak betetzea, alegia».

Zailena, berriz, belaeuko lesioaz gain, familia, lagunak, taldea... Euskal Herrian izateak sortu zion herrimina izan zen. Hala ere, oso harreman ona eta familia giroa lortu zuen pisuan zituen taldeko beste hiru jokalarirekin, eta «pisukideez agurtzea» egin zitzaion gogorrena: «Haiek gabe, Murtzian izan dudana esperientzia ez litzateke gauza bera izango».

Bestalde, «Hegoaldeko kamisetarekin jokatzeko kopa bat irabaztea da bete nahiko nukkeen ametsa», adierazi du Lopezek. UCAM taldeak denboraldi berrirako sinatzea proposatu zion Lopez, baina berak Hegoalden jokatzeko du denboraldi berria. Beraz, Maider Lopez gurekin izango da berriro.



Maider Lopez tolosarra, Murtzian (Espainia). HITZA

dauzkagu... baina jokalaritzeko ere baditugu, eta horiek taldea gaztetzen joatea behar dugu denborak aurrera egin ahal, bestela, Hegoalde taldea desagertzeko arriskuan egongo litzateke eta».

Maite Argotek, Hegoalde taldeko bigarren entrenatzailea eta delegatua denak adierazi duenez, taldeak babesle baten beharra du, izan ere, «espon-

sor bat izateak asko lagunduko liguke». Bere aburuz, «oso gogorra egiten da hainbeste urtez lanean ibili eta behar beste laguntzarik ez jasotzea». Hala, babeslea edukiz gero taldearen kalitatea asko hobetuko litzatekeelakoan dago Argote: hala nola, bidaiaren baldintzak hobetuko lirateke eta kirolariak masaia gehiago jasotzeko aukera izango lukete.



Indarrez eta gogoz ekin zioten ibilbideari 290 laisterkariak, gerora sakabanatuko baziren ere. JAIONE ASTIBIA

# Tolosan barreneko 10 km-ko lasterketa, Behobiarako testa

300 bat parte-hartzaile ibili dira XVII. Herri Krosean; Jose Jabier Cuadrado eta Amaia Insausti izan dira irabazle

JAIONE ASTIBIA

Atzo burutu zen Tolosako XVII. Herri Krosa, San Esteban auzoko Kultur Astearen baitan, bertako Tonttor Kultur elkarteak antolatuta. Ibilbideak dituen 10 kilometroak azkarren egin zituen Zaldibiako Jose Jabier Cuadrado izan zen gizonetakoan, 30 minutu eta 36 segunduko denboraz. Emakumezkoetan, berriz, Amaia Insausti Oلابerriakoa sartu zen aurreneko, 35 minutu eta 26 segunduko denboraz.

Esan behar ia lehenabiziko itzulia burutzerako, gizonetakoan sailkapena erabaki samarra geratu zela, laisterketa buruan, amaierako hirukotea bera agertu baitzen, jarraitzaileekiko bentajaxoa hartuta eta horri bide guztian, bukatu arte eutsiz eta hirurak elkarren oso jarraian helmugaratuz. Emakumeen kasuan, sakabanatuek ere ibili ziren bide guztian elkarrengandik.

Hauek eta gainerako parte-hartzaileek ere, Behobia-Donostia maratotoierako gorputzaldia neurtzeko ballatu zuten, Tolosako auzo desberdinetatik igaroz, prestatuta zegoen 10 kilometroko ibilbidea. Atera, San Estebango ferialekuaren ataririk egin ziren 290 laisterkariak.

Behin San Frantzisko kalera aterata, goraldera, Berazubi, Iurreamendi, Amaro, Izaskun, igeritokiaren ondotik, Nafarroako zubia zeharkatu, Gorriti plazara eta berriz ere San Frantziskora; bira hau bi aldiz egin behar izan zuten, helmuga Ferialekuaren sarrera bera izanez.

Irten ziren ia guztiak zeharkatu zuten helmugako zinta: 14 emakumezkoek guztiak bukatu zuten eta gizasemeetan, berriz, gazteetan bi lagunek utzi zuten laisterketa eta besteetan, lau gutxiagok. Edozein moduz, antolatzaileek beren artean esaten zutenaren arabera, aurreko urteetan baino korrikalari gutxiagok parte hartu zuten atzokoan «350, 400 parte-hartzaile izatera iritsi gara beste urteetan. Gaurkoan, agian, eguraldi freskoxeagoa ere egiten du eta horregatik izan daiteke. Edo Donostialdean beste krosen bat ere bazela esan dute», zioten. Zeruan hodeiak ageri baziren ere, laisterkarako giro ona zegoela zioen ere bazen.

Giroa eta gogoia, ordea, bidean ibili zirenek izan zuten batez ere, eta bide ertzean eta ondoren sari banaketan ere, zurei animoak emateko bildu ziren ikusle mordoskak ere bai, Fe-

### SAILKAPENA ▶

#### XVII. HERRI KROSA

##### Gazteak.

##### Gizonetakoak

1. Garikoitz Bravo	0.37.20
2. Iker Albisu	0.37.57
3. Jon Saizar	0.39.01

##### Helduak.

##### Emakumezkoak

1. Elena Huarte	0.38.53
2. Nagore Aramendi	0.40.11
3. Oihana Unanue	0.45.43

##### Gizonetakoak

1. Imanol Cruz	0.32.11
2. J. Carlos Valdibielso	0.32.16
3. Ugaitz Artola	0.32.38

##### Beteranoak.

##### Emakumezkoak

1. Amaia Insausti	0.35.26
2. Nieves Zarza	0.36.07
3. Rosa Talavera	0.36.35

##### Gizonetakoak

1. Jose Jabier Cuadrado	0.30.36
2. Iñaki Guerrero	0.30.46
3. Alberto Ibañez	0.31.01

rialekua txaloz bete baitzuten, kirolariak garaikurrak eta diru-sariak jasotzen zituzten bitartean. Laisterkari guztiak kamiseta bana jaso zuten.

**Harpidedunei banatua ▶ 2004ko urriaren 13a, asteazkena ▶ II. urtea**

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

Udalak: Abeltzisketa, Aduna, Albitur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Aneta, Balaran, Belauntza, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itura, Lantzi, Leaburu, Lizartzi, Orendain, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurki.

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jauriaritza,  
Kultura Saila



GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzera

13

BIHARKO

EGURALDIA

goizez



arratsaldez



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

## AGENDA ▶

### DEILADIAK

**Tolosa.** Ezker abertzalearen bilera. Gaur, 20:00etan, Kultur Etxean. Bi gai izango dituzte hizpide: kokapen politikoa eta ildo politiko nagusia, *Euskal zirkloaren erronka* izenekoak.

**Tolosa.** Ikasturte hasierako bilera Hirukideko ikasleen gurasoentzat. Gaur, Lehen Hezkuntza 1eko gurasoekin bilduko dira Jesuitinetan 17:30ean eta Lehen Hezkuntza 4ekoekin 18:30ean leku berean.

**Belauntza.** Belauntzako mediku gelan podologia zerbitzua eskainiko da bihar 09:00etatik aurrera.

Zerbitzu hau jaso ahal izateko ezinbestekoa da txanda hartzea 653700486 (Oroitx) edo 658749237 (Aranbxa) telefonoetan.

**Belauntza.** KZgunean 18:00etatik 20:00etara Kutxanet mintegia egingo dute.

### NAFARROA OINEZ

**Belauntza.** Nafarroa Oinez ekitaldira autobusez joateko izen-emateko azken eguna bihar, Kultur Etxean. 6 euro ordaindu behar da.

**Ibarra.** Gazte Asanbladak antolatutako autobusean Lizarrara joateko, Zubiaurre eta Karlatz tabernetan eman behar da izena. Ibarra ikasleek eta langabetuek 5 euro eta kanpokoek eta langileek 8 euro ordaindu beharko dute.

### ZINEMA

**Ibarra.** Bihar ohiko zine-klub emanaldia egingo dute Gaztetxean. *La vida de David Gale* filma izango da ikusgai 21:45ean.

### ERAKUSKETA

**Tolosa.** David Barandiaran billabonatarren margolanen erakusketa dago ikusgai Sorron koadro dendan.

### IKASTAROAK

**Villabona.** Sukaldaritza errazeko ikastaroa izango da asteazken bezala, Biltoki elkarteak., 18:00etatik 20:00etara eta urritik abendura iraungo du. Izen-ematea, elkarteko bulegoan.



Lehen kolunpioak zeuden guneak hutsik ageri dira. I. TERRADILLOS



Lurreko kautzuak ere mugituta daude bere ohiko lekuetatik. I. T.

# Non daude kolunpioak?

**TOLOSA ▶** Tolosako parkeak itxura goibela du azken egun hauetan, izan ere, bertako hainbat jostailu 'desagertu' egin dira



Tolosako parkean ohi baino jostailu gutxiago ageri dira egun hauetan. INIGO TERRADILLOS

### ERREDAKZIOA


**E**z jakin zergatik eta nola, baina kolunpioak desagertzen ari dira Tolosako parkeak. Zer egin behar ote dute? Zeinek? Lehengo batean, ondoko kaletik igarotzerakoan ohar tu ginen horretaz. Geroztik, zainketa lanetan ari gara, baina ez dugu bestelako mugimendurik ikusi. Ezin jakin gauza handirik!

Edonola ere, pentsa liteke lehengoak zahartuta edo hautsita egon zitezkeela eta berritzera eraman dituztela. Edo zoru hobexegoa jartzeko asmoz, bitartean lekutu egin dituztela. Ez dakigu!

Tolosako haurrentzat ez ezik, inguruko herrietakoentzat ere gogoko jolaslekua zen, da, eta berriz ere, laster, lehengo itxura berreskuratuko due-lakoan gaudu: kolunpioz jantzia eta neskato eta mutikoz be-tea, gurasoak hitzaspertuan dauden bitartean.

Hala bazen, ez bazen, sar da-dila... parkean!

## ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Joxelu (Berastegi).  
Gaur urteak. Zorionak  
lagunen partetik.



**ZORIONAK**  
Aitor Galarza Altuna (Amezeta).  
Gaur bi urte. Muxu handi bat eteko  
guztien partetik. Berezi, Jonen partetik.



**ZORIONAK**  
Ziortza (Tolosa).  
Gaur urtebete.  
Familiaren partetik.

## HITZA, zorion agurren

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, **tartea**  
ezkontzak, jaioberriak...

zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behe - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. **Mila esker!**